

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntza, zein Amarita menpeko toki erakundeko 29.ean dagoen lursail bati –0059-2002-1064-0002 katastro-erreferentzia kalifikazio xehatua egungo urbanizaziora doitzeko baita**

Hauxe onetsi zuen Gasteizko Udalbatzak 2016ko maiatzaren 27an egindako bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntza, zein Amarita menpeko toki erakundeko 29.ean dagoen lursail bati –0059-2002-1064-0002 katastro-erreferentzia kalifikazio xehatua egungo urbanizaziora doitzeko baita.

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko idatzitako proiektua ikusi da, zeina Gasteizko Amarita menpeko toki erakundeko 29an dagoen lursail baten — 0059-2002-1064-0002 katastro erreferentzia duena — ingurukoa baita, hain zuzen, egun duen kalifikazio xehatua bertan dagoen urbanizaziora doitzeko.

Amarita menpeko toki erakundeko 29.eko lursailean dagoen eraikina eta hesitura egin zirenean, Amaritak doan utzi zizkion udalari lursail horren barruko lurak, izan ere 1990ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren antolamendu xehatuaren arabera zuzkidura publikoetarako baitziren, publikoetarako zuzkiduretarako baitziren, bideetarako zehazki

Gerora, indarrean dagoen 2003ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aipatutako lursail horren barruko lur-zati gehiago bideetarako zirela ezarri zuen eta, ondorioz, eraikina eta hesitura berariazkoa den antolamendutik kanpo daude, bidetarako kalifikazioa duten lurretan baitaude.

2014ko azaroaren 13an, R. B. L. de P. jaunak planeamendua egokitzeko eskatu zioen udalari, bertan zegoen eraikina eta lursailaren itxitura errespetatu zitezten.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuak 2016ko urtarrilaren 13an egindako txostenaren arabera, eskatutako aldaketaren xedea lursailaren kalifikazioa egungo errealitatera doitzea da, eta urbanizatutako bidea nahikoa zabala denez, izapidetzea dagokio.

Aldakuntza proiektu horrek ez du Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko egiturazko antolakuntzako zehaztapenik aldatzen, haren barruko antolamendu xehatuko zehaztapenetako batzuk baizik.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuan honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharrendaren justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko otsailaren 12an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa

horri, zein Gasteizko Amarita menpeko toki erakundeko 29.ean dagoen lursail bati (katas-tro-erreferentzia: 0059-2002-1064-0002) kalifikazio xehatua egungo egoerara doitzeko baita; Guztia R. B. L.de P. jaunak eskatuta eta dosierrean jaso den proiektuarekin bat.

Aipatutako erabakia 2016ko otsailaren 24ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofi-zialean argitaratu zen (22 zk.), eta El Correo Español egunkarian, 2016ko otsailaren 18an. Aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilabetez jendaurrean jarri zelarik, erakunde edo pertsona interesdunek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 20ko 105/2008 Dekretua-ren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldakuntzaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierren parte diren hirigintza-agi-rietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak —abenduarien 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Irizpen Batzordeak Udalbatzari:


#### Erabakia

1. Vitoria-Gasteiz udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xeha-tuari behin betiko onespina ematea, Gasteizko Amarita menpeko toki erakundeko 29an dagoen lursail baten – 0059-2002-1064-0002 katastro-erreferentzia duena– kalifikazio xehatua errealita-tera egokitzeko, R. B. L. de P. jaunak hala eskatuta, Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzi eta dosierrean bildu den proiektuarekin bat.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Ad-ministrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

ALDATUTAKO ARAUDIA



Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 2an

Alkate lehendakaria  
GORKA URTARAN AGIRRE